



OSTATU MAHAIA / MESA DE ALOJAMIENTO

2022ko uztailak 21

GAI-ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoeraren azterketa
2. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - Getxo Bono 2023 proposamenak
 - GetxoAktibaTU! 2022
 - 2022ko kontrataziorako laguntzak
 - Fororako ordezkari berria
 - Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
 - Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

BERTARATUAK: (% 22)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoa eman gabe
Neguri hotela,	Javier Angulo		X	
Embarcadero hotela	Bárbara Anasagasti			X
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui			X
Igeretxe hotela	Nagore Saiz			X
Artaza hotela	Joseba Oribe			X
Areeta pentsioa	José Miguel Pérez	X		
El Abra pentsioa		X		
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés		X	
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolás		X	
Kai Apartamentuak	Jasone Fernández			X
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko	Mirene Zabalgogezkoa		X	



Arloa	Sonia Urdiain	X		
-------	---------------	---	--	--

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Bileraren bezperan sektoreko 4 enpresaren baieztapena jaso zen; horietako bik goiz bileraren berean adierazi dutenez, ez dute bilerara joaterik. Hala, Jose Miguel Pérez (Areeta pentsioa & El Abra pentsioa) bakarrik joan da bilerara, aldez aurretik baieztatu gabe.

Eskariaren bilakaerari eta aurreikuspenei dagokienez, uztaileko eta abuztuko okupazio-maila oso ona dela adierazi digu. Hilabete horietarako bezeroak nagusiki estatukoak diren arren, atzerriko bezeroei dagokienez, ohikoan baino erreserba gehiago ditu.

Erreserbak nagusiki Booking bidez egin dira.

Bereziki kezkatzen du udazken-neguko kanpainak. Oraingoz, une horretarako eskaria ia hutsa da, eta, haren ustez, data horietarako aurreikusitako kontsumo-etenaldiari buruzko albisteak ikusita, horrek kontsumitzailearen gaineko presioa areagotuko du, ziurgabetasun-giroa sortuko du eta sektorearentzat itxaropen gutxiko egoera eragingo du.

Jakinarazi digunez, TicketBAIra egokitzeko beharrezkoa den garapen teknologikoan aurrera egiten ari da.

2. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta ordezkari sektorialek egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu da, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa.

Ez da horri buruzko ekarpenik egin.

3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

3.1. Getxo Bono 2023 proposamenak

Ostatu-establezimendu bat ere ez da atxiki Getxo Bono 2022 kanpainara. Komenigarria litzateke irailaren 8a baino lehen jakitea ea ekimen hori ez zaion ongi egokitzen sektoreari, Getxo Bono 2023 kanpaina diseinatzeari begira.

3.2. GetxoAktibaTU! 2022

GetxoAktibaTU! programa zertan datzan eta pandemian online formatura nola bideratu zen gogoratu da. Gaur egun, aurrez aurreko jardueri ekin zaie berriro. Gainera, enpresak parte hartzera animatzen dira, programarako



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

jarduerak antolatuz: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - GetxoAktibaTU](#)

3.3. 2022ko kontrataziorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontrataziorako laguntzak eskatzeko. [Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontrataziorako 2022](#)

3.4. Fororako ordezkari berria

Jakinarazi da ostatu-sektoreak ez duela ordezkaririk. Garrantzitsua da hutsunea betetzea, sektore hori ordezkariarik gabe geratzen baita:

- Tokiko ostatu-sektore osorako.
- Hura enpresen kontsulta-foroan ordezkari izateko: foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak lehentasuna ematen diete beste hainbat mahai sektorialetatik helarazitako proposamenei.
- Kontraste Mahai Politikoan ordezkari izateko: foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak beren beharrak eta proposamenak azaltzen dizkiete udal-ordezkari duden talde politikoetako ordezkariak.

Interesatuak hautagaitzak aurkez ditzakete, ahal dela kontsulta foroaren hurrengo bilera baino lehen (irailaren 13an), helbide honetara idatziz: getxolan@getxo.eus

4. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.

Bileraren egunean proposamenik ez bada, ostatu-enpresek proposamenak eta ekarpenak egin ahal izango dituzte irailaren 8ra arte, helbide honen bitartez: alojamiento@getxo.eus

Helburua da sektorearen egoera orokorra hobetzen lagunduko duten proposamenak identifikatzea.

5. Hurrengo urratsak:

- Irailak 13 (14:30): Enpresen kontsulta foroa. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte. Ostatu mahaiak, gaur egun, ez du ordezkari duden hautagairik, eta, beraz, ez du mahaiaren proposamenak defendatzen dituen ordezkariarik.

OSTATU MAHAIAREN ERABAKIAK (2022/07/21):



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Hautagai berria proposatzea Enpresen Kontsulta Foroan ordezkari izan dadin.	Sektoreko enpresak	Ahal dela, irailaren 13a baino lehen
3. GetxoBono 2023an parte hartzeko interesik baden jakinaraztea, eta egoki iritzitako iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak egitea	Sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
4. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	Sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte